


MIKEL ZARATE LEJARRAGA (1933-1979)

Lezaman, 1933.eko Martxoaren 6an mundura etorri zen herri berean, 1979.eko Apirilaren 10ean hil zen Mikel Zarate Lejarraga.

Mikel, etxegintzako aparejadoretarako ikasketak egin ondorean, hogeitazazpi urtekin sartu zen Derion apezgai eta hogetahamaikakin eman zuen meza berria. Laster ekin zion euskarazko laneri eta era berean eman zion Filosofia eta Letrak ikasteari Deustoko Unibertsitatean. 1974an jaso zuen lizentziatura eta urrengo urtetik Unibertsitate berean maisu eskolako irakasletzan sartu zen, Derioko Seminarioan lan bera jarraituaz eta Liturgia batzordean parte hartuz.



MIKEL ZARATE
(1933-1979)

Mikelek, ordurako, zenbait liburu argitaratuak eta sariak jasoak zituen. Merezimendurik aski zuelako izendatu zuen Euskaltzaindiak urgazle 1972. urtean.

1978. urtetik Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia sailean irakasle zen. Eta, urte honetan, Euskaltzaindiaren eskariz gertatua, Bergaran egin zen Biltzarrean "Euskara batua eta euskalkiak" zeritzan txostena irakurri zuen (EUSKERA, XXIII (1978)-2, 557-568 orr.). Gai hontaz oso kezkatua zegoen bizkaiera batura eraman ahal izateko edo bizkaieraren guna euskara idatziaren batasunera emateko.

Bere lanak, literaturagintzazkoak eta euskararen eta euskal literaturaren ikerketazkoak izan dira gehien bat: ipuiak, eleberriak, olerkiak, saiaerak..., eten gabeko etorria eta lagintzarako kemena zuen Mikelek eta liburu asko idaztera heldu zen.

Hara hemen argitaratutako liburu zerrenda: *Gure Meza Deuna* (Bilbo, 1959), *Gure salbaziño-egintza* (Bilbo, 1967), *Meza liburu txikia* (bizkaieraz, gipuzkeraz eta gazteleraz) (Bilbo, 1968), *Bizkaiko euskal-idazleak*. Bizkaiko literaturaren kondaira antzera. 1580-1968. (Bilbo, 1970), *Haurgintza minetan* (Zarautz, 1973), *Ipui antzeko* (Bilbo, 1975), *Euskal deklinabidea* (Bizkaieratik baturantz), (Durango, 1975), *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (Durango, 1975), *Influencias del vascuence en la lengua castellana, a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Chorierrri-Gran Bilbao* (Bilbo, 1976), *Higidura berdez* (Donostia, 1977), *Euskal Literatura I eta II. Azterbideak, aztergaiak, azterketak* (Durango, 1977 eta 1978), *Euskal Ortografia* (Durango, 1978), *Bizipenen bultzadaz* (Durango, 1978), *Utopiaren fantasian* (Donostia, 1979).

Horiez gainera beste honako hauek utzi zituen argitaratu gabe: *Bilbo irribarrez*, 55 ipui labur; *Hizunigu*, eleberrri laburra; *Etorriaren zorabioz*, olerkiak. Eta guztiz bukatu gabe utzi zuen azken hamar urte hontan euskara batuan idatzitakoaren antologia, hitz-lauz.

Garrantzizko galera izan da Mikelena. Gazte, jakitun eta langile borrokatua sasoirik onenean joan zaigu. Bete ezinezko hutsunea utzi digu.

Goian bego, adiskide eta lankide maitea.

J. S. M.